

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Luzaide.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Luzaide.

- 2416 *Agian eroriko aiz!*  
Eroriko al aiz!
- 2417 *Aho ertxitik ez da ulirik sartzen.*  
Erderaz ere ola.
- 2418 *Aitzinetik ederki, eta gibeletik autsiki.*  
Aurrean eder ta atzetik ozka.
- 2419 *Alaba bakarra, debro bakarra.*
- 2420 *Andredena martxoko, behia larrean aseko: Erramu egunerako zezena da beldurxko.*
- 2421 *"Andredena martxoko, nik negiari opoko (ostiko)" esan omen zuen beorrak. Eta "Ni Erramuren beldur, kixkorrez (kazkarabarrez) egin dezan elhur" esan beiak.*
- 2422 *Apezak azken hitza bere.*  
Oihenart-ek berdin dakar (29).
- 2423 *"Apezek ere zenbat gezur entzuten duzie!"*  
-"Entzuten ba, bano ez sinesten".
- 2424 *Apirila, biribila, urdandegian urdia hila: ez da hila, bada hila, buztana badabila.*
- 2425 *Apirila, biribila, urdandegian urdia hila: urde-zaina esartian, gasna puska hortz artian.*
- 2426 *Astoa sal, eta "Burro" erosi.*  
Lan txar bat utzi ta txarragoa artu.
- 2427 *Badik, badik, badik, zeremonia luzia dik. Fite, fite, ez baitik, zeremonia labur dik.*  
Apezak ola kantatzen omen illarietan, illen mezetan. Ikus Basaburuko esaeretan Onek badik...
- 248-9 *Bakotxak bereak bere, eta bertzenak erdizka.*  
Batzuen batzuk ola nai.

- 2430 *Damu den buriak ibili behar gorputz horrekin.*  
Buru ergela gorputz ederrean.
- 2431 *Denborakin ezautuko 'uzu hori nor den.*
- 2432 *Eguberri ilargiakin, artzaina axuriakin.*
- 2433 *Eiharan egon ta bidean laster.*  
(Lesaka-ko esaera omen da). "Errotan lasa, ta bidean presa".  
Berdintsu beste leku askotan. Oihenart-ek ere bai (129).
- 2434 *Eltze guzitako zalia.*  
Leku ta gauza guzietan sartu nai izaten duena.
- 2435 *Etxe bateko gauzarik gaixtoenak: kheia eta emazte gaiztoa.*  
Beste tokiren batean: kea, ituxura eta andre mozkorra.
- 2436 *Etxeko suia (sua), etxeko hautsaz gorde.*  
Ola Oihenart-ek: eta beste tokietan.
- 2437 *Ez izan ta bai uste, kanka zarreko yaun gazte.*  
Zarreko = tzarreko.
- 2438 *Ez dik horrek etxia leihotik botako.*
- 2439 *Fite erre tik (ditik) horrek paperak.*  
Agudo, laster aspertu da ta utzi ditu lagunak edo lana edo.
- 2440 *Galdegin zakon batek bertziari: "Nola bizi aiz hain huntsa?".*  
- "To, errain diat: Zor zaharrak uzten tiat (ditiat) ahaztera (aztutzero), eta berriak ez pagatzen".
- 2441 *Gauza onak nai tuzu egin, bano anitzetan ezin.*
- 2442 *Gure nausia samurtu (aserretu) da, eta gauzak ez tu (ditu) huntsa ikusten.*
- 2443 *Gu behartu orduko, errekan urik ez da izain (izango).*
- 2444 *Guk oilua dugularik, beti ortziralia.*  
Mehe-eguna, haragirik ezin yan.
- 2445 *Handi-naia, egonen aiz gutirekin.*  
Aundi-naiak gutxi izaki ta.
- 2446 *Haur sortu ta haur hil.*

Zartzearekin berriz aur biurtzen.

- 2447 *Hilak hil ta biziak bizi.*
- 2448 *Hire haurra azi ezak egungo haragiz atzoko ogiz ta yoan den urteko arnoz*  
Oihenart-ek: "Haz nezak egungo aragiaz, atzoko ogiaz, eta xazko arnoz; eta atxeterrak bihoaz" (213).
- 2449 *"Hire haurrak lepoa mehia eta buria handia din".*  
-"Batean ez dena bertzian din".
- 2450 *Hitza atera bano lehen, kaso in (egin) zak zer erran behar duken.*  
Itza bein aotik atera ezkerro, ez baita atzera itzultzen.
- 2451 *"Horiek noiz ezkontzen dira?"*  
-"Bazkotan". -"Noizkotan?" "Arizkun-en Baztan".
- 2452 *Horren ganitak (labanak) baditu bi aho.*  
Mingain gaiztoaz esana.
- 2453 *"Huntsa bizi zara?". "Ba! yan, edan, pipa, lo".*  
Huntsa = ongi.
- 2454 *Huntzak biligarruari: Buru handi!*  
Nork nori! Huntza = ontza, gautxoria.
- 2455 *Hur-urte, elhur urte.*
- 2456 *Yan porru, ondoan dolu.*  
Porrua jan ta gero damu.
- 2457 *Yanak yateko, eta lanak egiteko.*
- 2458 *Yantzan (dantzan) hobeki daki, arto-yorran bano.*
- 2459 *Yaunak araiz entzunen dautzu!*  
Jaunak entzungo al zaitu!
- 2460 *Yende behartsuak anitz amets egiten.*
- 2461 *Yondoni Marti, prest dena, parti!*  
San Martiñetan prest dagoena bijoa! Esaera au Luzaide-ko oitura bati zor zaio:  
Egun ortan (azaroaren 11'n) egiten zuten mutil edo morroien aldaketa.
- 2462 *Kandelera yin bero? negia gero.*

- 2463 *Kanpoan lili (lore), ta etxean elorri. Edo: kanpoan lili, etxean bele.*  
Oihenart-ek: "Kanpoan urzo, etxean bele" (107).
- 2464 *Kartak mehe ta yokua lodi.*
- 2465 *Lanak ez dire bahatzen, baizik uzten.*
- 2466 *Lehen hala, orai hola, gero ez dakigu nola.*  
Jauregi baten ate gaiñean zegon idatzia ori.
- 2467 *Maiatza pardo, ta ekaina klaro.*
- 2468 *Martin, bihar duk san Martín. -Hobe genduke gaur balitz!*  
*Hik zer diok, Yoan? -Bertziak yoaten badira, ni ere yoan.*  
*-Hik Mikele? -Bertzek diotena nik ere.*
- 2469 *Martxoan lanao norano, maiatzian elhurra harano.*  
Noraño, araña.
- 2470 *Naiago nitek hire kaldo-maldo guziak bano salda xorta(ba)t.*
- 2471 *Nai duenak nai duena erran: ni Eugi-ko Martikotena.*  
(Baztango esaera omen da).
- 2472 *Nigarrez sortu nintzen, nigarrez hiltzeko; ez ordea munduan beti*  
*bizitzeko.*
- 2473 *Nola yin, hala yoan.*  
Nola etorri ala joan; nola irabazi ala galdu.
- 2474 *Nola sonuak, hala dantza.*
- 2475 *Ogia erre arterano, opila.*  
*Edo bestela: Ogia erre arterano, opilaz kontent.*
- 2476 *Oilo txarra (txikia), beti oilanda.*
- 2477 *Pika bezain ergela.*  
Pika, txori ezaguna (erderaz picaraza, urraca).
- 2478 *Pikoka ari ziren.*  
Bata besteari gaizki-esaka.
- 2479 *Porria yan, ta porru lan.*  
Porrua, gauza aula jan ta lan aundia ezin egin.

- 2480 *San Mark, azia balin ba'uk (duk), emak.*  
Ereiteko tenorea apirillaren 25'an.
- 2481 *San Mark, hamar bizkar-larru, eta oino (oraino) hotzak.*  
(Garralda, Aezkoa-n).
- 2482 *Urak emana, urak eraman.*  
Esne-saltzaleak, esnari ura nasiz, erosi zuen mantaliña; ta zubia igarotzean, aize-boladak urera eraman. Orduan arek esan; Urak emana urak eraman. Olako kontu bat, ikus Larraun-go esaeren artean.
- 2483 *Urrungo eltziak urrez, etxia (etxera) ta batez (bat ere ez).*
- 2484 *Xakur mehia, dena kukuso.*
- 2485 *Xakurrak min duen lekura mihia.*  
Oihenart-ek pollikiago: "Horak (zakurrak) non mina, han mihia" (249).
- 2486 *Zangoa arin, eta buria arinago.*  
Kaskariña.
- 2487 *Beti aterbean eta beti busti; zer ote da?*  
Asmakizuna. Mihia.
- 2488 *Luze ta mehar, mundu guzian behar; zer ote da?*  
Asmakizuna. Haria, josteko aria.
- 2489 *Ttipi ñoñorroño, goiz ernari dago; ez aho, ez ipurdi; ez daki nondik erdi;*  
*zer ote da?*  
Asmakizuna. Urra, urritzaren fruitua.